Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2008ko maiatzak 6 asteartea
85 Zenbakia

Martes 6 de mayo de 2008
Número 85

## LABURPENA — SUMARIO

| | Orrialdea |
|---|---|
| 3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak. | 14.253 |
| 4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa...... | 14.287 |
| 6 Autonomia Erkidegoko Administrazioa.................. | 14.309 |
| 7 Udal Administrazioa...................................... | 14.330 |
| 8 Justizia Administrazioa.................................. | 14.390 |
| 9 Iragarkiak ................................................ | 14.422 |

| | Página |
|---|---|
| 3 Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.......... | 14.253 |
| 4 Administración del T.H. de Gipuzkoa.................... | 14.287 |
| 6 Administración de la Comunidad Autónoma ........... | 14.309 |
| 7 Administración Municipal .............................. | 14.330 |
| 8 Administración de Justicia .............................. | 14.390 |
| 9 Anuncios.................................................. | 14.422 |

# 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK 3

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena.*

Gipuzkoako Diru Laguntzen martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua onartzeak erantzun zien diru laguntzen kudeaketan sortutako arazoei. Izan ere, nahiz eta kudeaketaren garrantzi kualitatiboa gero eta handiagoa izan, lege erregulazio urria zuen. Lehen aldiz, gure antolamendu juridikoan, Gipuzkoako foru sektore publikoaren diru laguntzen jarduera antolatzen zuen marko juridiko oso bat ezarri zen.

Nahiz eta aipatu foru arauan jasotako xedapenen bitartez gure antolamendu juridikoan sartuta egon diru laguntzak ematearen hainbat alderdiren erregulazio osoa, beharrezkoa da garai hartan foru arau mailako erregulazioan sartzea egokitzat hartu ez ziren zati batzuk garatzea. Hori dela eta, foru dekretu honen bidez Diru Laguntzen Foru Araua garatzen duen Erregelamendua onartu da, foru dekretu honen amaierako lehen xedapenean oinarrituta (Diputatuen Kontseilua baimentzen du foru araua garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan).

# 3 DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 3

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

La aprobación de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa vino a dar respuesta a las cuestiones que planteaba la gestión de las subvenciones que, pese a su creciente importancia cuantitativa, se desenvolvía en medio de una escasa regulación legal; por primera vez, en nuestro ordenamiento jurídico, se establecía un marco jurídico completo ordenador de la actividad subvencional del sector público foral guipuzcoano.

Si bien los preceptos contenidos en dicha norma foral incorporan a nuestro ordenamiento jurídico una regulación completa de los distintos aspectos relacionados con la concesión de subvenciones, se hace preciso desarrollar determinadas partes que no se consideró oportuno incluir en una disposición con rango de norma foral. Por ello, y basándose en su disposición final primera, que autoriza al Consejo de Diputados para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y aplicación, mediante este decreto foral, se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral de Subvenciones.

Erregelamenduan, diru laguntzen kudeaketa funtsean aldatzen duten arau eta prozedurak jasotzen dira. Hona hemen alderdi nagusiak:

— Onuradunen obligazioak bete izana zehaztu eta akreditatzeko araubidea sinplifikatu da, obligazio horiek betetzea errazte aldera.

— Diru laguntzak zuritzeko eredu desberdinak arautu dira, hala nola kontu zurigarria, auditore txostenaren aurkezpena eta modulu bidezko zuribidea. Horiek guztiek onuradunen kargak murrizteko aukera emango dute.

Erregelamenduaren egiturak foru arauaren antolaketa sistematiko bera du, eta horretan jasotako hainbat alderdi garatu eta diru laguntzen kudeaketa errazteko beharrezkotzat hartutako beste alderdi batzuk sartzen ditu. Atariko titulua eta beste lau gehiago ditu, bai eta hirurogeita zortzi artikulu.

Atariko tituluak bi kapitulu ditu, eta foru arauaren xedapen orokorrak jasotzen ditu.

I. kapituluan, foru arauaren eremu objektibo eta subjektiboa jasotzen dira, eta esku hartzen duten pertsona edo entitateak nahiz xedea direla-eta diru laguntzen araudiaren aplikazio eremuan sartutako negozio juridikoak zerrendatzen dira.

Beste alde batetik, foru arauaren aplikazio eremutik kanpo dauden herri administrazioen arteko hainbat negozio zehaztuta geratu dira.

Gauza bidezko laguntzei buruzko artikulu baten ondoren, ondorengo bietan kontraprestaziorik gabeko diru laguntzak eta diru emateak arautu dira, foru entitate publiko enpresarialek eta partzuergoek, mankomunitateek eta beste pertsonifikazio publiko batzuek emandakoak direnean.

Kapitulu honen amaieran, Europar Batasunaren fondoen kargura finantzatutako diru laguntzen araubide juridikoa aipagai da.

II. kapituluan, diru laguntzen xedapen erkideak jasota daude, eta lau sekziotan banatuta dago.

1. sekzioan, onuradunei eta entitate laguntzaileei buruzko xedapenak araututa daude, batez ere zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari eta akreditatzeari buruzkoak. Onuradun batek edo entitate laguntzaile batek obligazio horiek bete dituela ulertzeko bete beharreko baldintzak zehaztuta daude. Hobekuntza gisa, obligazio horiek bete izana akreditatzeko modua erraztu zaie hainbat onuraduni: Erantzukizun aitorpen bat aurkeztuko da dena delako ziurtagiriak ekarri beharrean.

2. eta 3. sekzioetan, hurrenez hurren, emandako diru laguntzen publizitateari eta diruz lagundutako jardueren finantzaketari buruzko alderdiak jasota daude.

Azkenik, II. kapituluaren 4. sekzioan, foru arauan bermea eratzeko jasotako kasuetarako bermeen araubidea xedatuta dago: Entitate laguntzaileak hautatzeko prozeduretan, ordainketa aurreratuak eta konturako abonoak egiten direnean eratu beharreko bermeak; eta onuradunek eta entitate laguntzaileek bere gain hartutako konpromisoak betetzea ziurtatzeko eratzen diren bermeak.

I. tituluan, diru laguntzak emateko erabiltzekoak diren prozedurak araututa daude, eta konkurrentzia prozeduran (lehiaduna edo lehia gabea) emandako diru laguntzak eta zuzenean emandakoak bereizita daude.

Este reglamento incorpora reglas y procedimientos que suponen una mejora sustancial en la gestión de las subvenciones, destacando los siguientes aspectos:

— La simplificación del régimen de determinación y acreditación del cumplimiento de las obligaciones de las personas beneficiarias con el fin de facilitarles el cumplimiento de las citadas obligaciones.

— La regulación de diversos modelos de justificación de las subvenciones como la cuenta justificativa simplificada o con aportación del informe del auditor, la justificación por módulos, etc que permitirán reducir las cargas de las personas beneficiarias.

Su estructura sigue la misma disposición sistemática de la norma foral, desarrollando aspectos contemplados en ésta e incluyendo aquellos otros que se han considerado necesarios para facilitar la gestión de las subvenciones; se divide en un título preliminar y cuatro títulos más y contiene sesenta y ocho artículos.

En el título preliminar, compuesto por dos capítulos, se regulan las disposiciones generales de la norma foral.

El capítulo I se dedica el ámbito objetivo y subjetivo de la norma foral, relacionándose los negocios jurídicos que por razón de las personas o entidades intervinientes o por su objeto están comprendidos en el ámbito de aplicación de la normativa de subvenciones.

Por otro lado, se concretan determinados negocios entre administraciones públicas que quedan fuera de su ámbito de aplicación.

Tras un artículo dedicado a las ayudas en especie, los dos siguientes regulan las subvenciones y entregas dinerarias sin contraprestación, otorgadas por las entidades públicas empresariales forales y los consorcios, mancomunidades u otras personificaciones públicas.

Concluye este capítulo con una referencia al régimen jurídico de las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea.

El capítulo II contempla las disposiciones comunes a las subvenciones y está estructurado en cuatro secciones.

La 1.ª regula las disposiciones relativas a las personas beneficiarias y a las entidades colaboradoras; fundamentalmente, las relacionadas con el cumplimiento y acreditación de las obligaciones tributarias y ante la Seguridad Social, determinando los requisitos exigibles para considerar a una persona beneficiaria o entidad colaboradora al corriente de dichas obligaciones. Como mejora, cabe resaltar la simplificación en la forma de acreditar este cumplimiento para determinadas personas beneficiarias y que se efectuará mediante una declaración responsable que sustituye a la presentación de las correspondientes certificaciones.

Las secciones 2.ª y 3.ª regulan, respectivamente, los apartados relacionados con la publicidad de las subvenciones concedidas y la financiación de las actividades subvencionadas.

Por último, el capítulo II se cierra con la sección 4.ª en la que se regula el régimen de garantías para aquellos supuestos en que la norma foral prevé su constitución: En los procedimientos de selección de entidades colaboradoras, cuando se realizan pagos anticipados y abonos a cuenta y las que se establecen para asegurar el cumplimiento de los compromisos asumidos por las personas beneficiarias y entidades colaboradoras.

A reglar los diferentes procedimientos utilizados para la concesión de subvenciones, dedica el Título I su articulado, distinguiendo entre las concedidas en régimen de concurrencia –competitiva o no– y las que lo son de forma directa.

I. kapituluan, behin lehia sistema diru laguntzak emateko prozedura arruntzat hartuta, aurreikusi da oinarrietan eskaeren artean lehentasun ordena finkatzeko baldintzatik arrazoituta salbuesteko aukera, horien kopuruari begiratuta, deialdian jasotako kreditua nahikoa denean.

II. kapituluan, diru-laguntzak lehia bidez emateko prozedura jasota dago. Bi modalitate ezarri dira: Lehia prozedura eta lehia gabeko prozedura.

Foru sektore publikoaren diru laguntzen antolamendu juridikoan berria izateagatik, nabarmentzekoa da: Alde batetik, deialdian jasotako kreditua edo kredituak gehitzeko aukera, baldin eta kreditua deialdia ebatzi aurretik gehitzen bada; eta, bestetik, deialdi irekiak egiteko aukera, aurrekontu ekitaldi batean hautapen prozesu bat baino gehiago egitea diru laguntzako lerro beraren barruan aldi berean onartzeko balio duena.

Artikulu batean, lehia bidezko prozeduren oinarrietan jaso beharreko balorazio irizpideak eta horien ponderazio erlatiboa azaltzen dira. Azken hori ezinezkoa bada, irizpide guztiek garrantzi erlatibo bera dutela ulertuko da.

III. kapituluan, diru laguntza zuzenean emateko prozedura jasota dago. Diru laguntza horiek bideratzeko, tresna hauek erabiliko dira: Alde batetik, hitzarmen edo ebazpenak, herri, gizarte, ekonomia eta giza arloko arrazoiak frogatzen diren diru laguntza izendunen eta zuzenen kasuan, edo deialdi irekia zailtzen duten behar bezala arrazoitutako beste diru laguntza batzuen kasuan; eta, bestetik, foru dekretuak, onuradun batzuei zuzendutako zuzeneko diru laguntzen kasuan, herri, gizarte, ekonomia edo giza arloko arrazoiak edo edo deialdi irekia zailtzen duten behar bezala arrazoitutako beste diru laguntza batzuk frogatzen direnean.

Edozein kasutan, laguntza emateko egintza edo hitzarmena emakidaren oinarritzat hartuko dira Diru Laguntzen Foru Arauak jasotako ondorioetarako.

II. titulua diru laguntzak kudeatu eta zuritzeko prozedurari buruzkoa da, eta bi kapitulutan banatuta dago.

I. kapitulua birkontratazioari buruzkoa da, eta onuradunen eta pertsona fisiko edo juridiko edo nortasunik gabeko elkarteen artean lotura dagoela ulertzen den kasuak garatzen dira.

II. kapituluan, diru laguntzak zuritzeko modalitateak garatzen dira. Kudeaketa teknikak irtenbide eraginkor eta kalitatezkoak eskatzen dituen administrazio baten testuinguruan egokitu eta modernizatzeko beharrean oinarrituta, Diru Laguntzen Foru Arauak jasotako hiru modalitateak jasota daude, ahal den neurrian zuritzeko modua erraztuta: Kontu zurigarria, modulu bidezko akreditazioa eta kontabilitate egoeren aurkezpena.

Hori horrela, kontu zurigarriaren modalitatean, gastu frogagiriak agertuta aurkeztutakoak, auditoretza txostena agertuta aurkeztutakoak eta erraztuak bereizten dira. Kontu zurigarri murriztua aurkezteko aukera ematen du, gastu frogagiriak agertu gabe, kontu auditore baten txosten batez lagunduta. Era berean, horren arabera, 60.000 eurotik beherako diru laguntzetarako, jarduketa memoria bat eta gastu eta sarreren zerrenda sailkatua dela medio kontu zurigarri erraztua osatu daiteke. Horretarako, oinarrietan zehaztu behar dira diru laguntza ematen duen organoak hura behar bezala aplikatu izana zentzuz agertzeko erabiliko dituen laginketa teknikak.

En el capítulo I, y tras definir al de concurrencia competitiva como el procedimiento ordinario para la concesión de subvenciones, se prevé que las bases reguladoras puedan exceptuar motivadamente el requisito de fijar un orden de prelación entre las solicitudes presentadas, atendiendo al número de éstas, cuando el crédito consignado en la convocatoria sea suficiente.

El capítulo II está dedicado al procedimiento de concesión en régimen de concurrencia en sus dos modalidades: Competitiva y no competitiva.

Destacan, por su novedad en el ordenamiento jurídico regulador de las subvenciones en el sector público foral, tanto la posibilidad de incrementar el crédito o créditos consignados en la convocatoria, siempre que este incremento se realice antes de la resolución de la convocatoria, como la previsión de las denominadas convocatorias abiertas, que permiten que, de forma simultánea, se apruebe la realización de varios procedimientos de selección a lo largo de un ejercicio presupuestario dentro de una misma línea de subvención.

Dedica un artículo a los criterios de valoración que deberán recogerse en las bases reguladoras en los procedimientos de concurrencia competitiva, y a su ponderación relativa. Si ésta no fuera posible, se considerará que todos ellos tienen el mismo peso relativo.

El capítulo III está dedicado al procedimiento de concesión directa. Los instrumentos por los que se canalizan estas subvenciones son: Los convenios o resoluciones en los supuestos de subvenciones nominativas y subvenciones directas individualizadas en las que se acreditan razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública, y los decretos forales en los supuestos de subvenciones directas dirigidas a una pluralidad indeterminada de personas beneficiarias en las que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

En cualquiera de los supuestos, el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones.

El título II, procedimiento de gestión y justificación de las subvenciones está estructurado en dos capítulos.

El primero, dedicado a la subcontratación, desarrolla los supuestos en los que se considera que existe vinculación entre las personas beneficiarias y las personas físicas o jurídicas o agrupaciones sin personalidad.

El capítulo II desarrolla las modalidades de justificación de las subvenciones. Basándose en la necesidad de adecuar y modernizar las técnicas de gestión dentro de un contexto de una administración que demanda soluciones eficientes y de calidad, recoge las tres modalidades previstas en la Norma Foral de Subvenciones –cuenta justificativa, acreditación por módulos y presentación de estados contables–, simplificando, en la medida de lo posible, dicha justificación.

Así, en la modalidad de cuenta justificativa, distingue entre las presentadas con aportación de justificantes de gasto, con aportación de informe de auditoría y las simplificadas. Posibilita la presentación de una cuenta justificativa reducida, sin aportar justificantes de gasto, si fuera acompañada por un informe de un auditor o auditora de cuentas. y, para las subvenciones inferiores a 60.000 euros, determina cómo una memoria de actuación y una relación clasificada de los gastos e ingresos podrán conformar la cuenta justificativa simplificada. Para ello, es requisito que las bases reguladoras determinen las técnicas de muestreo que el órgano concedente utilizará para obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

Erregelamenduan beste aukera bat jasota dago: Modulu bidez zuritzea, diruz laguntzekoa den jarduera unitate fisikotan neurtu daitekeenean, jarduera horren merkatu balioaren ebidentzia edo erreferentziarik dagoenean eta moduluen unitateko zenbatekoa txosten tekniko arrazoitu batean zehazten denean. Prozedura honen bidez, diru laguntza zuritzeko, nahikoa da jarduketa txosten bat eta memoria ekonomiko bat aurkeztea.

Behar bezala ikuskatutako kontabilitate informazioa diru laguntza behar bezala aplikatu izana akreditatzeko nahikoa denean, kontabilitate egoerak aurkeztuta zuritu daiteke.

Azkenik, kapituluaren bukaeran espresuki aipatzen da diru laguntzak justifikatzeko bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabil daitezkeela, baldin eta oinarrietan horrelakoak onartuta badaude.

III. kapituluan, aldiz, diruz lagundu daitezkeen gastuak jasotzen dira; haren arabera, oinarrietan ezar daiteke diruz lagundutako jarduerari egozteko zeharkako gastutzat hartzen den kostu osoaren zatia, bai eta hark beste zuribide bat behar ez izana ere.

Titulu honen IV. kapituluan, diru laguntzaren ordainketa, hura kobratzeko eskubidearen galera eta hartzaileak eskatuta laguntza itzultzeko tramitea araututa daude.

III. tituluan, diru laguntzak osorik edo zati batean itzultzeko prozedura araututa dago, obligazio hauetako bat bete ez denean: Diru laguntza ematean finkatutako obligazioa, zuritzeko betebeharra edo jasotako finantzaketa publikoaren zabalkunde neurriak hartzeko obligazioa

Azkenik, IV. tituluan zigortzeko prozedura araututa dago, eta espedientea Ogasun eta Finantza Departamentuak proposatzen duenean hura tramitatzeko arauak jasotzen dira.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau,

XEDATU DUT

*Artikulu bakarra. Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzea.*

Onartuta geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua, jarraian txertatzen den testua duena.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

*Arauak indargabetzea.*

Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko dira xedapen honekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

## AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA

*Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabetea igaro ondoren jarriko da indarrean.

Otra alternativa que regula el reglamento es la posibilidad de justificación a través de módulos, en aquellos supuestos en los que la actividad subvencionable sea medible en unidades físicas, exista evidencia o referencia de valor de mercado de dicha actividad y el importe unitario de los módulos se determine sobre la base de un informe técnico motivado. A través de este procedimiento, la justificación se reduce a la presentación de una memoria de actuación justificativa y una memoria económica justificativa.

En aquellos supuestos en que la información contable, debidamente auditada, sea suficiente para acreditar la aplicación correcta de la subvención, la justificación podrá llevarse a cabo mediante la presentación de estados contables.

Finaliza este capítulo haciendo una mención expresa a la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos de justificación de las subvenciones, siempre que en las bases reguladoras se haya establecido su admisibilidad.

El capítulo III se ocupa de los gastos subvencionables y determina que las bases reguladoras podrán establecer la fracción del coste total que se considera coste indirecto imputable a la actividad subvencionada, y cómo éste no requerirá de justificación adicional.

El capítulo IV de este título contiene la regulación de los procedimientos de gestión presupuestaria que regulan el pago, la pérdida del derecho al cobro de la subvención y la devolución a iniciativa de la persona perceptora.

El título III regula el procedimiento de reintegro, total o parcial, de las subvenciones, siempre que se hubiera incumplido alguna de las obligaciones siguientes: Las establecidas con motivo de la concesión, la de justificación, o la de adopción de las medidas de difusión de la financiación pública recibida.

Para finalizar, el título IV se ocupa de la regulación del procedimiento sancionador y prevé las reglas para la tramitación del expediente cuando éste sea propuesto por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

*Artículo único. Aprobación del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones.*

Se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuyo texto se inserta a continuación.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

*Derogación normativa.*

A la entrada en vigor de este decreto foral, quedarán derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a esta disposición.

## DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

*Entrada en vigor.*

El presente decreto foral entrará en vigor al mes de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO DIRU LAGUNTZEN FORU ARAUAREN ERREGELAMENDUA

### AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| Atariko titulua. | Xedapen orokorrak. |
| I. Kapitulua. | Aplikazio eremua. |
| 1. artikulua. | Xedea eta araubide juridikoa. |
| 2. artikulua. | Aplikazio eremua. |
| 3. artikulua. | Gauza bidezko laguntzak. |
| 4. artikulua. | Foru entitate publiko enpresarialek emandako kontraprestaziorik gabeko diru emateak. |
| 5. artikulua. | Partzuergoek, mankomunitateek edo bestelako nortasuna duten herri erakunde batzuek kontraprestaziorik gabe emandako diru laguntzak eta diru emateak, eta hitzarmenetatik eratorritako diru laguntzak. |
| 6. artikulua. | Europar batasuneko fondoen kontura finantzatutako diru laguntzen araubide juridikoa. |
| II. Kapitulua. | Diru laguntza guztietarako xedapenak. |
| 1. Sekzioa. | Onuradunei eta entitate laguntzaileei buruzko xedapenak. |
| 7. artikulua. | Zerga obligazioak betetzea. |
| 8. artikulua. | Gizarte segurantzarekiko obligazioak betetzea. |
| 9. artikulua. | Diru laguntzak itzultzeak dakartzan obligazioak. |
| 10. artikulua. | Zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak bete izana eta zerga egoitza frogatzea. |
| 11. artikulua. | Zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak bete izanaren froga erraztea. |
| 12. artikulua. | Foru arauak 12. Artikuluan jasotako gainerako obligazioak bete izana frogatzea. |
| 13. artikulua. | Onuradun edo entitate laguntzaile izateko debekua baloratzea. |
| 14. artikulua. | Debekuaren hedadura eta iraupena, hura kontratuen amaieraren ondorioa denean. |
| 15. artikulua. | Diru laguntzak eskatzen dituzten pertsonen erregistroak. |
| 2. Sekzioa. | Publizitatea. |
| 16. artikulua. | Diru laguntzen publizitatea. |
| 17. artikulua. | Onuradunak diru laguntza publizitatzea. |
| 3. Sekzioa. | Jarduerak finantzatzea. |
| 18. artikulua. | Diruz lagundutako jardueren finantzaketa propioko ekarpena. |
| 19. artikulua. | Aldi berean emandako diru laguntzen berri ematea. |
| 20. artikulua. | Jarduerаren gaineko finantzaketa soberakina. |


## REGLAMENTO DE LA NORMA FORAL DE SUBVENCIONES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

### INDICE


| | |
|---|---|
| Título preliminar. | Disposiciones generales. |
| Capítulo I. | Del ámbito de aplicación. |
| Artículo 1. | Objeto y régimen jurídico. |
| Artículo 2. | Ámbito de aplicación. |
| Artículo 3. | Ayudas en especie. |
| Artículo 4. | Entregas dinerarias sin contraprestación otorgadas por las entidades públicas empresariales forales. |
| Artículo 5. | Subvenciones y entregas dinerarias sin contraprestación otorgadas por consorcios, mancomunidades u otras personificaciones públicas y subvenciones derivadas de convenios. |
| Artículo 6. | Régimen jurídico de las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la unión europea. |
| Capítulo II. | Disposiciones comunes a las subvenciones. |
| Sección 1.ª | Disposiciones relativas a las personas beneficiarias y a las entidades colaboradoras. |
| Artículo 7. | Cumplimiento de obligaciones tributarias. |
| Artículo 8. | Cumplimiento de obligaciones con la seguridad social. |
| Artículo 9. | Obligaciones por reintegro de subvenciones. |
| Artículo 10. | Acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias, con la seguridad social y la residencia fiscal. |
| Artículo 11. | Simplificación de la acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias y con la seguridad social. |
| Artículo 12. | Acreditación del cumplimiento del resto de obligaciones establecidas en el artículo 12 de la norma foral. |
| Artículo 13. | Apreciación de la prohibición de obtener la condición de persona beneficiaria o de entidad colaboradora. |
| Artículo 14. | Alcance y duración de la prohibición cuando derive de la resolución de contratos. |
| Artículo 15. | Registros de personas solicitantes de subvenciones. |
| Sección 2.ª | Publicidad. |
| Artículo 16. | Publicidad de las subvenciones concedidas. |
| Artículo 17. | Publicidad de la subvención por parte de la persona beneficiaria. |
| Sección 3.ª | Financiación de las actividades. |
| Artículo 18. | Aportación de financiación propia en las actividades subvencionadas. |
| Artículo 19. | Comunicación de subvenciones concurrentes. |
| Artículo 20. | Exceso de financiación sobre el coste de la actividad. |

| | |
|---|---|
| 4. Sekzioa. | Bermeak. |
| 21. artikulua. | Bermeen araubide orokorra. |
| 22. artikulua. | Bermeak noiz exijituko diren. |
| 1. Azpisekzioa. | Entitate laguntzaileak hautatzeko prozeduretako bermeak. |
| 23. artikulua. | Entitate laguntzaileak hautatzeko prozeduretako bermeak. |
| 2. Azpisekzioa. | Ordainketa aurreratuetako eta konturako abonoetako bermeak. |
| 24. artikulua. | Konturako ordainketetan edo ordainketa aurreratuetan bermeak exijitzea. |
| 25. artikulua. | Bermeen zenbatekoa. |
| 26. artikulua. | Bermeak hedatzea. |
| 27. artikulua. | Bermeak eratzeko moduak. |
| 28. artikulua. | Hirugarren pertsonek aurkeztutako bermeak. |
| 29. artikulua. | Bermeak eratzea. |
| 30. artikulua. | Bermeak exekutatzea. |
| 31. artikulua. | Bermeak deuseztatzea. |
| 3. Azpisekzioa. | Onuradunek eta entitate laguntzaileek beren gain hartutako konpromisoak betez aurkeztutako bermeak. |
| 32. artikulua. | Onuradunek eta entitate laguntzaileek beren gain hartutako konpromisoak betez aurkeztutako bermeak. |
| 33. artikulua. | Onuradunek beren gain hartutako konpromisoak betetzeko bermeak eta kautelazko beste neurri batzuk. |
| I. Titulua. | Diru laguntzak emateko prozedura. |
| I. Kapitulua. | Xedapen orokorrak. |
| 34. artikulua. | Diru laguntzak emateko prozedurak. |
| II. Kapitulua. | Diru laguntzak emateko konkurrentzia prozedura. |
| 35. artikulua. | Gehieneko gastua onartzea eta aurrekontu kredituen artean banatzea. |
| 36. artikulua. | Deialdi irekia. |
| 37. artikulua. | Balorazio irizpideak. |
| 38. artikulua. | Onuradunak egin beharreko jarduera zehaztea. |
| 39. artikulua. | Diru laguntzak ebaztea. |
| 40. artikulua. | Ebazpena aldatzea. |
| III. Kapitulua. | Diru laguntzak zuzenean emateko prozedura. |
| 41. artikulua. | Aurrekontuetan jasotako diru laguntza izendunak emateko prozedura. |
| 42. artikulua. | Foru arau batek edo lege mailako arau batek administrazioari ezarritako zuzeneko emakida bidez eskuratutako diru laguntzak. |
| 43. artikulua. | Herri, gizarte, ekonomia edo giza arrazoiak edo deialdi irekia zailtzen duten eta behar bezala frogatzen diren bestelako arrazoiak akreditatuta zuzenean ematen diren diru laguntzak. |

| | |
|---|---|
| Sección 4.ª | Garantías. |
| Artículo 21. | Régimen general de garantías. |
| Artículo 22. | Supuestos en los que se podrán exigir garantías. |
| Subsección 1.ª | Garantías en procedimientos de selección de entidades colaboradoras. |
| Artículo 23. | Garantías en los procedimientos de selección de entidades colaboradoras. |
| Subsección 2.ª | Garantías en pagos anticipados y abonos a cuenta. |
| Artículo 24. | Exigencia de garantías en pagos a cuenta o anticipados. |
| Artículo 25. | Importe de las garantías. |
| Artículo 26. | Extensión de las garantías. |
| Artículo 27. | Formas de constitución de las garantías. |
| Artículo 28. | Garantías prestadas por terceras personas. |
| Artículo 29. | Constitución de las garantías. |
| Artículo 30. | Ejecución de las garantías. |
| Artículo 31. | Cancelación de las garantías. |
| Subsección 3.ª | Garantías en cumplimiento de compromisos asumidos por personas beneficiarias y entidades colaboradoras. |
| Artículo 32. | Garantías en cumplimiento de compromisos asumidos por entidades colaboradoras. |
| Artículo 33. | Garantías y otras medidas cautelares en cumplimiento de compromisos asumidos por las personas beneficiarias. |
| Título I. | Procedimiento de concesión. |
| Capítulo I. | Disposiciones generales. |
| Artículo 34. | Procedimientos de concesión de subvenciones. |
| Capítulo II. | Procedimiento de concesión en régimen de concurrencia. |
| Artículo 35. | Aprobación del gasto por una cuantía máxima y distribución entre créditos presupuestarios. |
| Artículo 36. | Convocatoria abierta. |
| Artículo 37. | Criterios de valoración. |
| Artículo 38. | Determinación de la actividad a realizar por la persona beneficiaria. |
| Artículo 39. | Resolución. |
| Artículo 40. | Modificación de la resolución. |
| Capítulo III. | Procedimiento de concesión directa. |
| Artículo 41. | Procedimiento de concesión de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos. |
| Artículo 42. | Subvenciones de concesión directa impuesta a la administración por una norma foral o por una norma de rango legal. |
| Artículo 43. | Subvenciones de concesión directa en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública. |

| | |
|---|---|
| II titulua. | Diru laguntzak kudeatu eta zuritzeko prozedura. |
| I. Kapitulua. | Birkontratatzea. |
| 44. artikulua. | Diruz lagundutako jarduerak birkontratatzea. |
| Ii. Kapitulua. | Diru laguntzak zuritzea. |
| 1. Sekzioa. | Xedapen orokorrak. |
| 45. artikulua. | Diru laguntza zuritzeko modalitateak. |
| 46. artikulua. | Zuritzeko epea zabaltzea. |
| 47. artikulua. | Zuritzeko modua. |
| 48. artikulua. | Diru laguntzaren baldintzak aldatzeak diru laguntza egiaztatzean dituen ondorioak. |
| 2. Sekzioa. | Kontu zurigarria. |
| 1. Azpisekzioa. | Kontu zurigarria eta gastuaren frogagiria aurkeztea. |
| 49. artikulua. | Kontu zurigarriaren edukia. |
| 50. artikulua. | Gastuen frogagiriak balioztatzea eta zigilatzea. |
| 2. Azpisekzioa. | Kontu zurigarria auditoretza egin duten pertsona edo sozietateen txostenarekin batera aurkeztea. |
| 51. artikulua. | Kontu zurigarria auditoretza egin duten pertsona edo sozietateen txostenarekin batera aurkeztea. |
| 3. Azpisekzioa. | Kontu zurigarri erraztua. |
| 52. artikulua. | Kontu zurigarri erraztua. |
| 3. Sekzioa. | Moduluak. |
| 53. artikulua. | Moduluen aplikazio eremua. |
| 54. artikulua. | Moduluak eguneratzea eta berrikustea. |
| 55. artikulua. | Modulu bidez zuritzea. |
| 56. artikulua. | Moduluen araubidera bildutako onuradunen betebehar formalak. |
| 4. Sekzioa. | Kontabilitate egoerak aurkeztea. |
| 57. artikulua. | Kontabilitate egoeren bidez zuritzeko kasuak. |
| 5. Sekzioa. | Diru laguntzak telematikoki zuritzea. |
| 58. artikulua. | Diru laguntzak zuritzeko bitarteko elektronikoak erabiltzea. |
| III. Kapitulua. | Diruz lagundu daitezkeen gastuak. |
| 59. artikulua. | Diruz lagundu daitezkeen gastuak. |
| IV. Kapitulua. | Aurrekontu kudeaketako prozedura. |
| 60. artikulua. | Diru laguntza ordaintzea. |
| 61. artikulua. | Diru laguntza kobratzeko eskubidea galtzea. |
| 62. artikulua. | Diru laguntza hartzailearen ekimenez itzultzea. |
| III. Titulua. | Diru laguntza itzultzea. |
| 63. artikulua. | Diru laguntza ematean jasotako obligazioak ez betetzeagatik itzultzea. |

| | |
|---|---|
| Título II. | Procedimiento de gestión y justificación de subvenciones. |
| Capítulo I. | Subcontratación. |
| Artículo 44. | Subcontratación de las actividades subvencionadas. |
| Capítulo II. | Justificación de subvenciones. |
| Sección 1.ª | Disposiciones generales. |
| Artículo 45. | Modalidades de justificación de la subvención. |
| Artículo 46. | Ampliación del plazo de justificación. |
| Artículo 47. | Forma de justificación. |
| Artículo 48. | Efectos de las alteraciones de las condiciones de la subvención en la comprobación de la subvención. |
| Sección 2.ª | De la cuenta justificativa. |
| Subsección 1.ª | Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto. |
| Artículo 49. | Contenido de la cuenta justificativa. |
| Artículo 50. | Validación y estampillado de justificantes de gasto. |
| Subsección 2.ª | Cuenta justificativa con aportación de informe de persona o sociedad auditora. |
| Artículo 51. | Cuenta justificativa con aportación de informe de persona o sociedad auditora. |
| Subsección 3.ª | Cuenta justificativa simplificada. |
| Artículo 52. | Cuenta justificativa simplificada. |
| Sección 3.ª | De los módulos. |
| Artículo 53. | Ámbito de aplicación de los módulos. |
| Artículo 54. | Actualización y revisión de módulos. |
| Artículo 55. | Justificación a través de módulos. |
| Artículo 56. | Obligaciones formales de las personas beneficiarias en régimen de módulos. |
| Sección 4.ª | De la presentación de estados contables. |
| Artículo 57. | Supuestos de justificación a través de estados contables. |
| Sección 5.ª | De la justificación telemática de subvenciones. |
| Artículo 58. | Empleo de medios electrónicos en la justificación de las subvenciones. |
| Capítulo III. | Gastos subvencionables. |
| Artículo 59. | Gastos subvencionables. |
| Capítulo IV. | Procedimiento de gestión presupuestaria. |
| Artículo 60. | Pago de la subvención. |
| Artículo 61. | Pérdida del derecho al cobro de la subvención. |
| Artículo 62. | Devolución a iniciativa de la persona perceptora. |
| Título III. | Del reintegro. |
| Artículo 63. | Reintegro por incumplimiento de las obligaciones establecidas con motivo de la concesión de la subvención. |

64. artikulua. Diru laguntza zuritzeko obligazioa ez betetzeagatik itzultzea.

65. artikulua. Finantzaketa publikoaren jaso izanaren hedapen neurriak hartzeko obligazioa ez betetzeagatik itzultzea.

66. artikulua. Itzultzeko prozedura.

IV. Titulua. Zigortzeko prozedura.

67. artikulua. Zigortzeko prozedura.

68. artikulua. Ogasun eta finantza departamentuak proposatuta zigortzeko prozedura tramitatzea.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK.

I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA

*1. artikulua. Xedea eta araubide juridikoa.*

1. Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Diru Laguntzen 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren erregulazioa garatzea.

2. Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek ematen dituzten diru laguntzek Diru Laguntzen Foru Arauari, erregelamendu honi eta laguntza horietako bakoitzaren arauei jarraituko diete.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

1. Diru Laguntzen Foru Arauak eta erregelamendu honek xedatutakoa Diru Laguntzen Foru Arauak 2.1 artikuluan jarritako baldintzak betetzen dituzten eta aipatu foru arauak 3. artikuluan jasotako edozein subjektuk pertsona publiko edo pribatuen alde egiten dituen diru erabilpen guztiei aplikatuko zaie, diru erabilpen hori jatorri duen egintzaren edo negozio juridikoaren izendapena edozein izanik ere.

2. Diru Laguntzen Foru Arauak 2.2 artikuluan jasotako ondorioetarako, finantzaketa globaltzat hartuko dira beste herri administrazio baten edo horren mendeko organismo edo entitate publiko baten jarduera osoa edo zati bat finantzatzera zuzendutako ekarpenak.

3. Partikularki, Diru Laguntzen Foru Araua eta erregelamendu hau aplikatuko zaie:

a) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek beste administrazio publiko batzuekin sinatutako lankidetza hitzarmenei, zeinetan herri administrazio onuradunak bakarrik hitzarmenari lotutako arloan exekutatzeko eskumenak baititu. Diru laguntza ematen duen herri administrazioa behartuta dago hitzarmenaren beste aldeari edo aldeei diru ekarpena egitera, zereginak, inbertsioak, programak edo fondoak hartzen dituen herri administrazioaren beraren eskumenen esparruan sartzen den edozein jarduera finantzatze aldera.

Dena den, aurreko paragrafoaren salbuespenentzat hartzen dira diru laguntza hartzen duen entitateak derrigorrez egin beharrekoak diren eta legez edo foru arauz ezarriak diren jarduerak finantzatzea helburu duten diru ekarpenak.

Artículo 64. Reintegro por incumplimiento de la obligación de justificación.

Artículo 65. Reintegro por incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión de la financiación pública recibida.

Artículo 66. Procedimiento de reintegro.

Título IV. Procedimiento sancionador.

Artículo 67. Procedimiento sancionador.

Artículo 68. Tramitación del procedimiento sancionador a propuesta del departamento de hacienda y finanzas.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1. Objeto y régimen jurídico.*

1. El presente reglamento desarrolla la regulación de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Las subvenciones que concedan la Diputación Foral y los organismos autónomos forales se regirán por la Norma Foral de Subvenciones, por el presente reglamento y por las normas reguladoras de cada una de ellas.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

1. Lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones y en el presente reglamento será de aplicación a toda disposición dineraria que, cumpliendo con los requisitos establecidos en el artículo 2.1 de la Norma Foral de Subvenciones, sea realizada por cualquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de la citada norma foral a favor de personas públicas o privadas, cualquiera que sea la denominación dada al acto o negocio jurídico del que se deriva dicha disposición.

2. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 2.2 de la Norma Foral de Subvenciones, se entenderá por financiación global las aportaciones destinadas a financiar total o parcialmente, con carácter indiferenciado, la totalidad o parte de la actividad de otra Administración Pública o de un organismo o entidad pública dependiente de ésta.

3. En particular, serán de aplicación la Norma Foral de Subvenciones y el presente reglamento a:

a) Los convenios de colaboración celebrados por la Diputación Foral o los organismos autónomos forales con otras Administraciones Públicas, en los que únicamente la Administración Pública beneficiaria ostenta competencias propias de ejecución sobre la materia objeto del convenio, consistiendo la obligación de la Administración Pública concedente de la subvención en la realización de una aportación dineraria a favor de la otra u otras partes del convenio, con la finalidad de financiar el ejercicio de tareas, inversiones, programas o cualquier actividad que entre dentro del ámbito de las competencias propias de la Administración Pública destinataria de los fondos.

No obstante, constituyen una excepción a lo señalado en el párrafo anterior las aportaciones dinerarias que tengan por objeto financiar actividades cuya realización sea obligatoria para la entidad beneficiaria de la subvención y venga impuesta por una ley o una norma foral.

b) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek zuzenbide pribatuko pertsonek lehendik egin edo gero egingo duten eta emaitza material edo inmaterialaz zuzenbide pribatuko subjektua bakarrik jabetu eta berak erabiltzekoa den jarduera bat osorik edo zati batean finantzatzeko betebeharra beren gain hartzekoak diren lankidetza hitzarmenei.

4. Ez dira sartuko foru arauaren aplikazio eremuan:

a) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek beste herri administrazio batzuekin sinatutako hitzarmenei, baldin eta entitate onuradunaren kargura kontraprestazioren bat badakarte.

b) Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek beste herri administrazio batzuekin sinatutako hitzarmen eta itunak, baldin eta helburu badute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 7. artikuluan aipatutako plan eta programa bateratuak egitea, eta herri administrazioek exekutatzeko eskumen partekatuak jasotzen dituzten hitzarmenak.

c) Kuota arrunt edo berezi gisa Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek nazioarteko organismoei haien jarduera osoa edo zati bat, bereizi gabe, erabat edo partzialki finantzatzeko ordaintzen dizkieten diru ekarpenak.

*3. artikulua. Gauza bidezko laguntzak.*

1. Diru Laguntzen Foru Arauak 2.3 artikuluaren 2. paragrafoan jasotako ondasun, eskubide edo zerbitzu salmentak, aipatu artikuluaren 1. apartatuko a), b) eta c) letretan jarritako baldintzak betetzen badituzte, gauza bidezko laguntzatzat hartuko dira eta foru arau horri eta erregelamendu honi lotuta geratuko dira, beren xedearen berariazko izaeraren berezitasunak aintzat hartuta.

2. Diru Laguntzen Foru Arauak 32. artikuluan jasotako aurrekontu kudeaketako prozedura ez da aplikatuko laguntza hauek tramitatzean. Nolanahi ere, ulertu behar da diru laguntzak ordaintzeko artikulu horretan exijitutako baldintzak laguntzari lotutako ondasun, eskubide edo zerbitzuaren salmentari buruzkoak direla.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, ondasun, eskubide edo zerbitzuak laguntzaren deialdia egin ondoren saltzen badira, Diru Laguntzen Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotakoa aplikatuko da gastua deialdiaren aurretik edo aldi berean onartzeko beharrari dagokionez.

3. Gauza bidezko laguntza itzuli behar dela erabakiz gero, ondasun, eskubide edo zerbitzuaren erosketa prezioaren pareko zenbatekoa hartuko da itzultzeko kopurutzat. Nolanahi ere, berandutza interesa exijituko da, Diru Laguntzen Foru Arauak 35. artikuluan jasotakoaren arabera.

*4. artikulua. Foru entitate publiko enpresarialek emandako kontraprestaziorik gabeko diru emateak.*

1. Hirugarren pertsonei diru ematean, foru entitate publiko enpresarialak kudeaketa eta informazio printzipioei lotuta egongo dira, hurrenez hurren Diru Laguntzen Foru Arauak 7.4 eta 17. artikuluetan jasotakoari jarraituz.

b) Los convenios de colaboración por los que la Diputación Foral o los organismos autónomos forales asumen la obligación de financiar, en todo o en parte, una actividad ya realizada o a realizar por personas sujetas a derecho privado y cuyo resultado, material o inmaterial, resulte de propiedad y utilización exclusiva del sujeto de derecho privado.

4. No se entenderán comprendidos en el ámbito de aplicación de la norma foral:

a) Los convenios celebrados por la Diputación Foral o los organismos autónomos forales con otras Administraciones Públicas que conlleven una contraprestación a cargo de la entidad beneficiaria.

b) Los convenios y conciertos celebrados por la Diputación Foral o los organismos autónomos forales con otras Administraciones que tengan por objeto la realización de los planes y programas conjuntos a que se refiere el artículo 7 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como los convenios en que las Administraciones Públicas que los suscriban ostenten competencias compartidas de ejecución.

c) Las aportaciones dinerarias que, en concepto de cuotas ordinarias o extraordinarias, satisfagan la Diputación Foral o los organismos autónomos forales a organismos internacionales para financiar, total o parcialmente, con carácter indiferenciado, la totalidad o un sector de su actividad.

*Artículo 3. Ayudas en especie.*

1. Las entregas de bienes, derechos o servicios previstas en el artículo 2.3, párrafo 2.º de la Norma Foral de Subvenciones que cumplan los requisitos previstos en las letras a), b) y c) del apartado 1 del citado artículo tendrán la consideración de ayudas en especie y quedarán sujetas a dicha norma foral y al presente reglamento, con las peculiaridades que conlleva la especial naturaleza de su objeto.

2. El procedimiento de gestión presupuestaria previsto en el artículo 32 de la Norma Foral de Subvenciones no será de aplicación a la tramitación de estas ayudas, sin perjuicio de que los requisitos exigidos para efectuar el pago de las subvenciones, recogidos en dicho artículo, deberán entenderse referidos a la entrega del bien, derecho o servicio objeto de la ayuda.

No obstante lo anterior, en el supuesto de que la adquisición de los bienes, derechos o servicios tenga lugar con posterioridad a la convocatoria de la ayuda, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 32.1 de la Norma Foral de Subvenciones respecto a la necesidad de aprobación del gasto con carácter previo o simultáneo a la convocatoria.

3. Si se declarase la procedencia del reintegro en relación con una ayuda en especie, se considerará como cantidad recibida a reintegrar, un importe equivalente al precio de adquisición del bien, derecho o servicio. En todo caso, será exigible el interés de demora correspondiente, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral de Subvenciones.

*Artículo 4. Entregas dinerarias sin contraprestación otorgadas por las entidades públicas empresariales forales.*

1. Las entidades públicas empresariales forales, en las entregas dinerarias sin contraprestación que realicen a favor de terceras personas, estarán sujetas a los principios de gestión y de información previstos respectivamente en el artículo 7.4 y 17 de la Norma Foral de Subvenciones.

Diru Laguntzen Foru Arauak eta erregelamendu honek jasotako arau eta printzipioen arabera entrega horiek ematean, entitateak zehaztutako prozedurari jarraituko zaio. Alderdi hauek jasoko ditu aipatu prozedurak:

a) Erabakia hartzeko eskumena duen organoa.

b) Erabakiaren edukia. Beti alderdi hauek jasoko dira hartan:

1. Diru entregaren gaia, xedea eta baldintzak.

2. Hartzaileek bete beharreko baldintzak.

3. Hautaketa irizpideak.

4. Gehienez zenbat emango den.

c) Eskaerak aurkeztea sustatzeko erabiliko diren publizitate bitartekoak, eta deialdiaren edukiari buruz emango den informazioa. Deialdia 300.000 eurotik gorakoa denean edo hartzaile bakoitzari 100.000 eurotik gora ematekoa denean, entitatearen ohiko publizitate bitartekoez gain, aurreko letran aipatutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara.

d) Eskaeren tramitazioa.

e) Hartzaileak laguntza eta publizitatea zertan eta nola erabili dituen frogatu behar du.

2. artikulu honen 1. apartatuan aipatutako entitateek foru arauak 20.3 artikuluan jasotako kasuetan bakarrik eman dezakete dirua kontraprestaziorik gabe zuzenean.

*5. artikulua. Partzuergoek, mankomunitateek edo bestelako nortasuna duten herri erakunde batzuek kontraprestaziorik gabe emandako diru laguntzak eta diru emateak, eta hitzarmenetatik eratorritako diru laguntzak.*

1. Partzuergoek, mankomunitateek edo administrazio zuzenbideari lotutako bestelako nortasuna duten beste herri erakunde batzuek ematen dituzten diru laguntzak, entitate horien eta Foru Aldundiaren nahiz foru organismo autonomoen artean formalizatutako hitzarmenetatik eratortzen direnean, hitzarmenean bertan ezarritakoari jarraituz arautuko dira. Hitzarmenak, edonola ere, bat etorri behar du beti Diru Laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan jasota dauden xedapenekin.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hitzarmena zuzenbide pribatuko entitateekin formalizatuz gero, haien estatutuetan eta eraketako tresna juridikoan jasotakoaren arabera, Diru Laguntzen Foru Arauak jasotako printzipioak eta diruz laguntzen duen entitateko gainerako entitateei aplikaziozkoak zaizkien beste horiek aplikatu beharko dizkiete kontraprestaziorik gabeko diru entregei. Dena den, diru laguntzak estatutu horietan edo beste tresna juridiko batean aurreikusitako administrazio ahalmenak erabiliz ematen badira, aurreko apartatuan jasotakoa aplikatuko da.

*6. artikulua. Europar Batasuneko fondoen kontura finantzatutako diru laguntzen araubide juridikoa.*

1. Diru Laguntzen Foru Arauak 6. artikuluan jasotako ondorioetarako, Foru Aldundiak edo foru organismo autonomoek eman eta Europar Batasunaren fondoen kargura osorik edo zati batean finantzatu diren diru laguntzek Batasuneko araudiari eta horren garapen edo transposizio arauei jarraituko diote. Gainera, aurrekoen ordez aplikatuko dira aipatu foru arauak eta Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubidearen 2007ko martxoaren 27ko 4/07 Foru Arauak jasotako emate prozedurak.

